

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Gorputz Hezkuntza eta Ingurune Naturalak

Egilea

Mikel González Ruiz

Gradua

Lehen Hezkuntza

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak,
- 15. Lehorreko ekosistemetakako bizitza

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan Gorputz Hezkuntza eta ingurune naturalak hezkuntza testuinguruan integratzen saiatzen da. Horretarako, natura ingurunekeo jarduera fisikoak beste eremu batzuekin diziplina arteko harremanak ezartzeko ardatz egituratzailea izango dira, bereziki gaitasun zientifiko, sozial eta zibikoarekin. Natura ingurunekeo jarduera fisikoek izugarritzko aukerak ematen dizkigute irakaskuntza-ikaskuntza prozesua garatzeko. Gainera, jarduera horiek ikaskuntza esanguratsua eta motibatzailea lortzeko tresna bikainak dira. Horrekin batera, balioetan oinarritutako hezkuntza, ikaskuntza kooperatiboa eta jasangarritasun hezkuntza sustatzeko bide ezin hobeak dira. Horretarako, Jasangarritasunerako Hezkuntzak funtzesko papera izango da eta Garapen Jasangarrirako Helburuak abiapuntutzat hartuko dira. Diseinatutako proposamenean natura eta hezkuntza testuingurura egokitutako jarduera batzuk azaltzen dira. Jarduera horietan ikasleek ingurune naturalean hainbat jarduera fisiko esperimendatzeko eta ezagutzeko aukera izango dute. Gorputz Hezkuntza eta ingurune naturalak ikaskuntzarako bitarteko gisa erabiliz, ikasleen garapen integrala bilatzen da.

Sekuentzia didaktikoan Garapen Jasangarrirako hainbat helburu abiapuntutzat hartuko dira. Lehendabizi, GJH15. Lehorreko Ekosistemen Bizitza eta jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzea. Ikasleek lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babesten, berrezartzen eta sustatzen ikasi behar dute. Basoak modu iraunkorrean kudeatu behar dira, desertifikazioaren aurka borrokatu behar da, lurren degradazioa geldiarazten eta inbertitze eta biodibertsitatearen galera gelditzen ahalegindu behar dugu. Ondoren, GJH3. Osasuna eta Ongizatea. Sedentarismoari aurre egitea bizitza osasuntsua bermatuz eta guztiontzako ongizatea sustatuz. Horretarako, ikasleak beren egunerokotasunean osasuna sustatzen duten jokabideak hartzeko gai izatea bilatuko da. Azkenik, GJH12. Produkzio eta Kontsumo arduratsuak, kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatuz. Ikasleek bizimodu jasangarriak zein diren ulertu behar dute eta norberaren bizimoduan hartzen diren erabakiek eragina dutela gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren garapenean. Horrekin batera, sekuentzia didaktikoan produkzio eta kontsumo eredu jasangarriak sustatuko dira. Horretarako, ikasleek tokiko biodibertsitatea ezagutuko dute. Gainera, sekuentzia didaktikoan zehar jasangarritasun jarrerak eta jokabideak garatzea espero da.